



ERAIKIN BERRIAK EGITEKO OBRA LIZENTZIA

Eraikin berriak egiteko obra lizentzia eskatzeko, ondoko agiriak aurkeztu behar dira:

* Ondoko atalak dituen Oinarrizko Proiektua:

- a) Txostena: - Xedea/aurrekariak; hirigintza-justifikazioa eta hartutako irtenbidearen azalpena.
- b) Eranskin teknikoak: - EKT egiaztagiria (OA-SB eta OA-ES) eta irisgarritasuna (68/2000 D).
- c) Aurrekontuaren laburpena
- d) Planoak: Egoera; Kokalekua; Lursailaren egungo egoera agertzen duen planoak; Jabego eta erabilera publikoko utzitako lursailaren planoak; arkitekturako planoak – (Solairuak, altxaerak, atalak) + kotatutako planoak.

Lizentzia eskatzeko, halaber, exekuzio-proiektua aurkez daiteke. L-8 atalean duzue azken proiektu horrek gutxienez jaso behar dituen datuak.

* Urbanizazio osagarriarentzako dokumentazioa:

- a) Txostena: Hartutako irtenbidearen azalpena; Instalazioen kalkulua eta dimentsioak; eta Araudiaren egiaztagiria.
- b) Planoak: Dohain utzi zaion erabilera eta jabego publikoko lursailaren planoak; Instalazioak, sareak eta hartuneak; Ur horniketa; Saneamendua (Euri-ura eta ur zikinak); Elektrizitatea eta argiteria; Gasa; Hiriko altzarien planoak; Zoladuraren planoak.

* Aipatu agiriez gain (betiere Exekuzioaren gaineko oinarrizko agiria aurkeztu bada), 8-L “Eraikin berria egiteko obra hasiera baimentzea” ordenantzan zehaztutakoa ere entregatu beharko da. Izan ere, aipatu agiria indarrean dauden arauekin bat badator, obrei ekiteko baimena emango baita.

* Esku hartu duten teknikarien zerbitzu profesionalak eskatzearen Jakinarazpen-orkia, baita bi aldeek sinatutako kontratua ere.

* Hirigintza-aprobetxamenduaren eskualdaketa.-

- Jarduketa Asistematikoen kasuan –Hau da, HS-ri buruzko ekainaren 30eko 2/06 Legeari egokitu ez zaion eta indarrean dagoen HAPO exekutatzan ari diren jarduketan kasuan– beharrezkoa bada, eskatzaileak hirigintza-aprobetxamendua eskualdatzeko

formalizazio-proposamena egingo du, hori guztia 5/98 Legearen xedapen gehigarrian ezarritako modalitateekin bat.

- Beste pertsona batek jabe dituen berariazko aprobetxamenduak lortuz. Aipatutakoa akreditatzeko, eraikuntza gauzatuko den lursailaren eta lursail osagarriaren edo, kasuan kasu, osagarrien jabetza-titulartasuna erakusten duten dokumentu grafikoak eta literalak aurkeztuko ditu.

- Berariazko aprobetxamenduak Basauriko Udalari zuzenean erosituz.

* Derrigorrezko edo doako lagapenen edo/eta erabilera publikoko zortasunaren zirriborroa, Hirigintza Alorrean eskura daitekeen bi aldeetarako ereduarekin bat. Zirriborroaz gain, dagokion planoak ere entregatu beharra dago.

* Oinarrizko Proiektuan ageri diren obrak kutsatuta egon litekeen lursail batean egingo badira, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailburuordetzan Lurzoruaren Kalitate-adierazpena egiteko prozedurari ekiteko eskabidearen kopia aurkeztu beharra dago (Lurzoruaren kutsadura prebenitzeari eta zuzentzeari buruzko 1/2005 Legea).

Oinarrizko Proiektua aurkeztean, azken hori planeamenduarekin bat badator, eraikitze lizentzia emango da. Aipatu lizentzia SEI HILABETEren buruan iraungiko da. Denbora-tarte horretan lizentzia horretarako aurkeztu diren agiriak osatu egingo dira **Obrei ekiteko baimena** lortzeko aurkeztu behar direnekin.

Agiri horiek zuzenak badira eta eskabidea erregistroan sartu den egunetik zenbatzean hasita, Udalak **3 HILABETEKO** epean emango du eskatutako obra-lizentziaren gaineko ebazpena.

Agiriren bat falta bada, eskatzaileari 15 eguneko epea emango zaio akatsak zuzendu ditzan (indarrean dagoen Prozedurari buruzko Legearen 71. artikulua).